

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

GAIA


Areto futboleko jokalariak prest /8

ELKARRIZKETA

Virginia Imaz (Ohiulari Klown) /9

LEINTZ GATZAGA

Alhila eta Galia sahararrak herrian /10



SPRILUR
DEBA GOIENENKO INDUSTRIALDEA, S. A.
FAGOR SISTEMAS, S.COOP.
I.E.S.A. INDUSTRIAS EMBUTICION, S.A.
LEGAIA, S.L.
LAMINADOS DE ARETXABALETA, S.A.

Bainuetxeko
industrialde berria
motorrak berotzen

ASTEKO GAIA: JULEN COBOSEK DISKOA KALERATU DU/5 • NIRE BIDAIA HURA: MAITE O. ZARATE/7

ARETXABALETA ETA ESKORIATZAKO GREMIOEN GIDA/12

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 21
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 22
ITURRALDE, Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07

ARETXAGAZETA 943 79 86 21

Faxa 943 77 18 54

Basotxo 943 77 09 81

Euskaltegia 943 79 21 68

Gizarte laguntzailea 943 71 18 62

Hezibide elkarte 934 79 31 32

Industrialdea 943 79 62 80

Institutua 943 79 79 00

Kirol etxea 943 71 26 28

Kultura etxea 943 71 10 27

Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49

Kurtzebarri BHI 943 79 57 40

Liburutegia 943 71 18 62

Loramendi EE 943 77 09 70

Ludoteka 943 79 05 81

Mankomunitatea 943 79 30 90

Murruxiko ME 943 79 93 74

Musika Eskola 943 79 36 50

Osasun etxea 943 79 74 58

Otalora 943 71 24 06

Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42

Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77

Postetxea 943 79 28 31

Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00

Saretxo 943 71 26 56

Taxi geltokia 943 79 22 33

Udal Bulegoak 943 71 18 62

Udaltzaingoa 943 71 18 63

Urats Gain 943 79 99 11

UDALZAINGOA

Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIK

SOS Deiak 112

Eskualde Ospitalea 943 03 53 00

Ertzaintza 943 79 71 99

Gurutze Goria 943 76 55 76

Larrialdiaik 943 46 11 11

Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA

Domeketan: 12:00

Zapatuetan: 19:30

SANTA RITA

Domeketan: 09:00

Zapatutan: 8:00

Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN: AREANTZAN

Domeketan: 12:30

MENDIOLA

Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GALARTZA

Domeketan: 12:30

OHARRAK

HAUR DANTZARIEN EGUNA

Etzi, domeka, ospatuko dute Haur Dantzarien Eguna herrian. Goizean plazarik plaza ibiliko dira, askotariko dantzak egiten, Aretxabaletara etorriko diren bost dantza taldeak. Arratsaldean, berriz, herriko plazan alardea egiteko elkartuko dira dantzari guztiak.

GRIPEAREN KANPAINA

Joan den astelehenean zabaldu zuten gripearen aurkako txertoa jartzeko kanpaina. Aretxabaletako ambulatorioan arratsaldeko laurak arte jarriko dute txertoa. Batez ere, 65 urtetik gorakoei eta gaixo kronikoei egin diete txertoa hartzera joateko deialdia.

HERRI BAZKARIA

Kepa etxera! Faxismoari Stop lelopean herri bazkaria egingo dute irailaren 28an, Iturrigorri frontoian. Izena emateko azken eguna irailaren 24a izango da. Bazkarira joateko txartelak Arlutz eta Urbaltz tabernetan daude salgai.

EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA PLATAFORMAREN KALE AGERRALDIA

Irailaren 27an (egubakoitza), Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformak kale agerraldia egingo du, 19:00etan, Pagaldaixeneko kantoian.

LORAMENDIREN AGENDA


BEINKE-LORAMENDI DANTZA IKASTEKO ENTSEGUAK

Aurten ere, azken urteotan bezala, San Migel jaietan Beinke-Loramendi dantza herrikoia egiteko aukera izango duzue herritar guztiok. Horregatik, jakin eza zue entseguak egubakoitze-ro izango direla, 19:30ean, Kurtzebarri Eskolan. Animatu eta ez dakizuenok, behintzat, etorri dantza ikastera!

ORAIN DELA 8URTE ARETXABALETAN

Lege arazo bategatik Zaraia zinema itxi zuten

Zaraia zinemak orain dela zortzi urte izan zituen lehenengo arazoak. 1984ko irailaren erdialdean, Suteen Aurkako Legea jarri zuten indarrean. Lege hark hainbat baldintza jarri zizkien zinetokiei, eta Zaria ez zituen guztiak betetzen. Ondorioz, negu osoan ez zuten filmik eskaini.




BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Istantza”

Iluntzean ia ilundurik dagoeneko tarte hori. Egunaren eta gauaren arteko muga. Ilunabarra.

–Atzo istantzian uso bandara galantak pasau zaien.

–Istantzerarte ibilli lanian da, artu otarra, ta etxera aguro, laga afaixai tta



ZORIONAGURRAK




ARETXABALETA
Irati Zubillaga
20an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Markel Oskotz
21ean, 8 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Eñauten eta etxekoen partetik.



ARETXABALETA
Xabier Sierra
22an, 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.




ARETXABALETA
Jorge Bengoa
23an. Zorionak eta urte askotarako, lagun guztien partetik.



ARETXABALETA
Felix Arrese
23an. Zorionak eta muxu handi bat, zure emazte maitagarriaren partetik.



ESKORIATZA
Antton Salaberria
20an, 3 urte. Zorionak eta muxu handi bat, Iñakiren partetik.



ESKORIATZA
Cipriano Zubizarreta
16an, 84 urte. Urte askotarako! Zure lagun guztien partetik.



LEINTZ GATZAGA
Leintz Gatzaga
21ean, 14 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxeko guztien partetik.


ARETXAGAZETAK banatzaileak behar ditu.

Lansari interesgarria.


943 71 23 91

Kalitate goreneko estalketa elektrolitikoak


MIRVAT. Elkarte kooperatibo mugatua
Aingeru ibiltokia 41
ESKORIATZA
943 71 45 06 Faxa: 943 71 50 05



ATREBENTZIAEZPADA/ Perretxikuek hartzeko afiziñorik badauketzu? Ze hartzen dozu?



RAÚL CARTÓN
langillie




JOSE ANGEL OIANGUREN
langillie



PILI CASCAIANA
langillie



OLGA ETXEBARRIETA
jubilaue



FRANCISCO DURÁN
jubilaue



MARIA IGLESIAS
langillie

Mongixen bille faten naz Gorbeia. Horreik izeten die jasoten dittudan perretxiku bakarrak. Gaiñontzekuek ezagutu be ez dittut egitten; hortan, hartu be ez badittut egitten, hobeto!

Bai, ibiltten naz perretxikutan. Aurten, gaiñera, asko dago. Beste lagun batekin fanda, oingo, 20 kilo inguru batu dittugu. Gehixenbat, onddo balzak eta zurixek hartu dittugu.


Bai, denporie dauketenien faten naz perretxikutan. Niskaluek eta onduiek hartzen dittut, batez be. Aurten urte ona dala esaten daue, baiñe ondiokan ez dot denporarik euki.

Aurten, hemen eta Sorian ibilli naz perretxikutan. Asko batu dittut, gaiñera, Sorian gutxi, baiñe hamen onddo asko batu dittut. Kongeladorien sartzen dittut gero, urte osuen eukituko.

Sekule fan izen naz perretxikutan, baiñe gutxitan. Euri asko egin dau, eta urte ona izengo da onduendako, baiñe ez naz fan. Perretxikuek jasoten dotenien, lagunei emuten dutziet.

Txanpiñoien billa faten naz, baiñe bestelako perretxikuek ez dittut hartzen. Ez dittut ondo ezaguketan eta ez naz atrebiduten. Hala eta be, aurten erregalau dustie onddo batzuk.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK HORRELA EZIN DA! Aste honetan, Leizarra Musika Eskolan dabilzan guztien kexa bati egin diogu tartea sail honetan. Goiko argazkia koloretan izango balitz, hobeto ikusiko litzake kuartel zaharrean dauden hezetan arazoak. Urte batetik urtera, hainbat hormatako hezetan irudiak handituz doaz. Hala ere, aurten ere, beste leku baten faltan, hor hasi dute musika ikasturtea. /A.L.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN/4

Bainuetxeko industrialdea

Industrialde berrian hasi dira lanean lau lantoki. Enpresarik handiena LASA izango da.

ASTEAN BEHIN /5

Julen Cobos musikaria

Julen Cobosek bat gehio KOOP taldearekin 'Bihar agian' izeneko diskoa kaleratu zuen irailean.

KIROLAK /6

Kirol etxeko eskaintza

Kirol Zerbitzuak kirol etxeko eskaintza jasotzen duen diptikoa bidaliko die bazkideei.

ASTEKODATUA

165

TXERTO JARRI DITUZTE GRIPEARI AURRE EGITEKO

Eguaztena bitartean jende ugari joan da ambulatoriora gripearen aurkako txertoa jartzeko. Komunikabideetan eta entzuten delako, lehenengo egunetan joaten da jende gehien txertoa jartzera.

BESTE EKESANA

“Aretxabaletarra naiz, eta han hasi nintzen entrenatzaile lanetan. Sei urte ibili nintzen Aretxabaletako futbol


taldean, eta horren ondoren Arrasatera etorri nintzen. Arrasaten bost urte egin ditu talde gazteagoe-kin, eta aurten, lehenengo taldea entrenatzeko ardura izango dut.

Niretako futbola zaletasuna da. Baina mundu horretan sartzean garrantzi handia ematen diozu. Nirekin lan egiten dutenek badakite entrenamendua eta partiduak intentsitatea handiarekin bizi izaten ditudala. Ez dakit futbolaren gainean asko jakingo dudarik, baina egia da interes handia jartzeko dudala.

Mondrako gazteak sekulako ilusioarekin datoz, eta argi erakutsi dute zelaian ez direla kikiltzen.

JOSU ZUBIA
‘Arrasate press’/02-09-13

HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga



Akabau die oporrak

Danek ez euien akabauko oporrak, seguru ondio jente asko izengo dala hortik ziher edo bertan oporretan dabilena.

Batzuk oporrak hartzera ailegauko zien eta beste batzuk ez. Beti letxe, oin okerrenera lanien hastie da, bizimodu errazera oso bizkor eiten da bat, eta gero izeten die kontuek.

Aurten, bertan geratu dienei eguraldixek ez dutzie asko lagundu. Alde hortatik beintzet oso suerte txarrekuak izen die, baine alde ona be topauko eutzien, eta seguru etxien zein kanpuen danak be ondo pasauko zituela euren jai egunek.

Oporrak hartu ez dauienak eta eten barik lanien ibili eta jarraitketan dauienak egunero Euskal Herrixe eraskoketan dauienak die.

Urtietatik dabil izeten Euskal Herrixe jomugie. Oin ja di-ana erdi-erdixen zuletu daue, eta horren adibidie Bilboko manifestazinue izen zan. Ask

eta asko izen zien bertaratu zienak, nun bizi garen eta zeintzuk garen erakutsi guran. Hala eta be ikusten da ezinez- kua dala “Gora Euskal Herria” esatie. Honek esan gure dau laister San Migeletan baserri- tar erropaz jantzite fatie be debekatu eingo duskuela.

Hortaz, argi ibili eta burua erabili!!!

Euskal Herrixen bihotzak zoritxarrez ez dau taup-taup lehengo erritmo bardinien eiten. Era- suek egunero ja- soten die, eta egu- netik egunera la- tzauek. Horregatik, bihotz honen erre-

animazinuen danon bihera egongo da, eta oporrak akabau dienez, danok biherre!!!

Urrengo hitzordue Askata- sun Taupadatan dau, ia bene- tan askatasunien ibilteko aukerie egoten dan eta taupa- dak bai Euskal Herrixe eta bertako biztanliei erritmo egokixen funtzionetan izten duskuen. Bestela be, itxi taupadai poliki-poliki erritmue irabazten, baine sekule be ez mantsoketan.

“Beti letxe, oin okerrenera lanien hastie da, bizimodu errazera oso bizkor eiten da bat, eta gero izeten die kontuek.”

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Leintz Gatzagako Udala



M. J. Aretxaga

Onddoz onddo

Aurtengoa bai onddo-
endako urte oparoa.
Nork ez du onddorik
batu aurten? A ze gustura
ibili diren batzuk onddo
batzen, eta beste batzuek
majo bete dute tripa. Fri-
gorifikoa goitik behera be-
tetzeko beste onddo egon
da aurten. Oraindik geldi-
tuko dira banaka batzuk,
eta bihar joango naiz.

Onddo batzen ez, baina
arrasatearrak loreak
batzen etorri behar ei dira
gurera. Maritxutako kar-
telak hala dio, behintzat:
*Maritxuri eskaintza: betan
espedizioa Aretxabaletara
Maritxuri eskaintzeko
loreak batzera.* Barrika-
dak ipini beharko ditugu;
oraingoan ere, gure
beharra dute mondragoe-
tar hauek!

Eta bukatu aurretik,
Antonio Astigarraga
agurtu gura nuke. Fan
zaigu dagoeneko. Zorte on
eta nahi duzun arte,
Antonio.

INDUSTRIALDE BERRIA/Hil honetan, Laminados Aretxabaleta joan da industrialde berrira

Bainuetxeko industrialde berrian lau enpresa hasi dira lanean

AMAGOIA LASAGABASTER

Debagoieneko Industrialdea SAK orain dela urte batzuk martxan jarritako proiektua amaitu du dagoeneko. Bainuetxeko Industrialdea oraingoz osatuko duten lantoki guztiak dagoeneko hasi dira industrialde berrian lan egiten. Lau enpresa daude industrialdean.

Oraindik ez dute inaugurazio ekitaldirik egin, baina dagoeneko hasi dira lanean industrialde berriko hainbat enpresa. Oraingoz, Bainuetxeko Industrialdea LASA (Laminados Aretxabaleta SA), LEGAIA, Fagor Sistemas eta Industrias de Embutición enpresak osatuko dute.

LASA, LANTOKIRIK HANDIENA

Debagoieneko Industrialdea SAK kudeatu du hasieratik industrialdea; urbanizazio lan guztiak, LASA lantokikoak izan ezik, hark egin ditu.

Industrialde berriak 15.000 metro koadroko azalera du. Horietatik erdia baino gehiago LASAko eraikitako lantokiak betetzen du; Laminados enpresak 9.237 metro koadroko espazio erabilgarria duen eraikina egin du. Enpresa horren pabiloia industrialdeko sarreran dago, eta berde kolorekoa da. Orain arte, LASA herri erdialdean zegoen. Hasiera baten, lantokia joan den udan lekualdatu behar zuten, baina azkenik, hilabete honetan hasi dira LASAko langileak Bainuetxeko Industrialdean lanean.



AMAGOIA LASAGABASTER

Irailean hasi ziren LASAko langileak Bainuetxeko Industrialdean lanean.

Gainerako lantokiei dagokienez, LEGAIAk 1.413 metro koadroko eraikina egin du industrialdean, Fagor Sistemasek 4.685 metro koadrokoa eta, azkenik, Industrias de Embutición enpresak 2.420 metro koadro izango ditu bere produktuak egiteko.

400 METRO KOADRO, HUTSIK
Bestalde, industrialdean 400

metro koadroko lantokia gelditu da hutsik. Eremu horrek jabetza pribatua du eta, oraingoz, ez du inork bete.

Oraindik ez dute egun zehatzik jarri Bainuetxeko Industrialdea inauguratzeko; edozelan ere, Fagor Sistemasek bere pabiloiaren inaugurazio ekitaldia urriaren 18an egingo duela aditzera eman du.

LABUR

Zinpeko epaimahaien zozketarako errolda ikusgai dago

Joan den eguaztena ezker, ikusgai dago zinpeko epaimahaien zozketarako errolda. Herritarrek datorren eguaztenera bitarteko epea izango dute euren datuak ondo dauden begiratzeko. Zinpeko epaimahaiak aukeratzeko zozketa urrian egingo dute.


Gripearen aurkako txertoa jartzeko deialdia egin dute

Herriko anbulatoriotik gogorarazi gura dute pertsona nagusiek eta gaixo kronikoek gripearen kontrako txertoa hartu behar dutela. Herriko anbulatorioan urriaren 31ra bitartean jarriko dute txertoa, goizeko bederatzietatik arratsaldeko laurak bitartean, hain zuzen ere.

Otalora kaleko lanek gas-isurketa eragin zuten

Joan den martitzen goizean, susto ederra hartu zuten Otalora kaleko bizilagunek. 8. atarteko etxebizitza zaharberritzen ari diren langileek gas hodi bat zulatu zuten. Ondorioz, gas isurketa gertatu zen eta ertzainak eta suhiltzaileak etorri ziren. Goizeko ordu batzuetan kalea itxia egon zen.

Arotz lanetan behar duzun guztia



AZKARATE
AROSZTEGIA

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3. BERGARA
Tel.: 943 76 47 19.
ARETXABALETA Tel.: 943 77 01 24



ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea.
Tel.: 943 76 18 93
BERGARA



Jauregi
Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA

LEIBAR
arrandegia

Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta



IBARRA
JATETXEA

Menua eta karta

Araba ibilbidea 29
ARETXABALETA
943 79 70 60



PIENSO
SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
ARETXABALETA
Tel. 943 77 00 33/79 42 56

GUREA

taberna
jatetxea

Durana kalea
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 20 64

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK

RKU

URKULU, S.L.

Mitarte, 23
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

HERRIKO MUSIKARIA / Bat gehio KOOP musika taldeko partaide da Julen Cobos

Julen Cobosek 'Bihar agian' izeneko diskoa kaleratu du

AMAGOIA LASAGABASTER

Julen Cobos aretxabaletarra aspaldi joan zen Bartzelonara. Eta, antza denez, musikarako zaletasuna ere berarekin eraman zuen autobusean. Julenek, Bartzelonan sortutako bat gehio KOOP taldearekin, 'Bihar agian' izeneko diskoa kaleratu berri du.

Orain dela aste batzuk, Julen Cobos Aretxabaletan izan zen bisitan. Julen Bartzelonan bizi da, baina noizean behin, herriminak jota, herrira bueltatzen da. Oraingoan, gainera, ez da esku hutsik bueltatu. Berarekin batera Bartzelonako belardietan bat gehio KOOP izeneko taldearekin grabatutako diskoa ekarri du. *Bihar agian* izeneko diskoan 13 abesti batu ditu taldeak; guztiak ere, euskara hutsean.

JULENEN HITZAK

Bihar agian diskoak diruaz, maitasunaz, hipokrisiaz eta beste hainbat gaiez hitz egiten digu. Azken baten, kantu bakoitzak doinu goxoz eta gitarra soinu jantzitako istorioa kontatzen du. Eta istorio horien egilea Julen du. Julenek dira kantuetako hitz gehientsuenak. *Bermioko mari- neta, Txipiroiak saltsan, Utopia mari merkromina, Pinuzko kutxa merke batean...* Horiexek dira *Bat gehio* diskoaren zenbait abestiren izenburuak. Taldekideei dago- kienez, Julenez gainera, bat gehio KOOP taldean Eneko (gitarra



MIKEL SANCHO ETA AMAIA

Bartzelonako Musika Tradizionalaren eta Artearen egoitzan, kontzertua ematen.

elektrikoa), Jorge (bateria), Har- kaitz (gitarra akustikoa) eta Gui- lle (baxua, koruak eta gitarra) ibi- li dira lanean.

DISKOA SALGAI

Julenek irailean kaleratutako diskoaren hainbat kopia ekarri

ditu herrira. Gehienak lagun arte- an banatu ditu, eta gainerakoak, aldiz, saltzeko utzi ditu herriko tabernetan.

Diskoak eskaintza eta guzti dauka. Atzeko aldean zera dau- ka idatzita: *Hortxe, zain egon zari- en danontzat Alfajarinen beti!*

TXUTXUMUTXUA



Opari eta guzti agurtu zuten parrokoa

Lagun arteko afaria eginez agurtu zuten joan den egubakoit- zean Antonio Astigarraga parrokoa. Parrokiako lanetan par- te hartzen duten 50 lagun inguru elkartu ziren Taberna Berrin. Agur-afarian une politak bizi izan zituzten. Afariaren amaie- ran, esaterako, Antoniok opariak jaso zituen: margolan polit bat eta ordenagailu pertsonala opari egin zioten afarian batu- takoek. Margolanak ez dakigu, baina ordenagailuak laguntza handia eskainiko dio, seguruenik, Bartzelona aldean. /A. L.

LABUR

Erretiratuen Eguna ospatzeko laguntza eskatuko diete herriko komertzioei

Aurten ere ez zaio erretiratuen jaialdiari hutsik egingo. Urriaren 5ean ospatuko dute herriko erretiratu guztiek euren omenezko eguna. Udal batzordea dagoeneko hasi da festa antolatze- ko lanak egiten, baina, urtero moduan, Erretiratuen Eguna antolatze- ko dirua falta da. Horregatik, beste behin ere, antolatu gura dituzten ekin- tzetako gastuei aurre egiteko, herriko enpresa eta komertzioei lagun- tza eskatu diete. Laguntza eskaeraren gaineko informazio gehia- go Udaleko Gizarte Zerbitzuetan jaso daiteke.

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79

Maritxu drogeria mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

DOIKALSE

Elektroerosio lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 82 44

Lezama BIDEO KLUBA

Zure gustoko zinema!

Santa Kurtz 24
ARETXABALETA
943 79 33 95

OSKAR GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4
ARETXABALETA

SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETA
943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

BEIRALAN KRISTALDEGIA

- Ispilu bizelatuak
- Ateentzako beirateak
- Beirate grabatuak eta landuak
- Bainugelako altzari eta manparak
- Neurri zehatzetarako armairuak
- Enmarkazioak
- Lantegietako mantenimentua
- Beiran naiz metakrilatoan neurria eginiko edozelango lanak

Herriko plaza, 8 behea • Aretxabaleta • 943 79 81 78 / 670 997 274

KIROLETXEA

Aurten ere kirola egiteko esku bete eskaintza izango da kirol etxean

Aurtengo berritasunen artean, igeriketa ikasturtea eskaini gura dute kirol etxean


AMAGOIA LASAGABASTER

Herriko Kirol Zerbitzuak kirol etxean izango diren ikastaroen eta kurtsoen berri emango du, diptiko baten bitartez. Aurten, gainera, berritasun bat ere eskainiko dute: igeriketa kurtsoa, hain zuzen ere. Kurtso horrek orain arte egin diren ikastaroen lekua hartuko du.

Kirol eskaintza oparoarekin, beste behin ere, kirola eta osasuna uztartuta doazela gogorarazi gura izan du Kirol Zerbitzuak. Horrela, aurten, diptiko baten bitartez kirol etxean egingo diren kirolen gaineko informazioa bidali diete kirol etxeko bazkideei.

ASKOTARIKO KIROL ESKAINTZA

Kirol Zerbitzuak orain arte egin diren kirolei jarraipena emango die. Horrela, aurreko hilabetetan kirol etxean ibili direnek eurei dagozkien kirol eskoletan jarrai dezakete. Multzo horretan kirol hauek daude: aquagyma, Atzegiko gimnasia, gimnasia terapeutikoa, karatea, sasoiaren egoteko gimnasia, hirugarren adinako gimnasia eta aerobika.



AMAGOIA LASAGABASTER

Kirol Zerbitzuak 2.000 diptiko inguru banatuko ditu bazkideen artean.

IGERIKETAN BERRITASUNA

Igeriketa eskolei dagokienez, hiru hilabeteko ikastaroak eman izan dituzte kirol etxean. Aurten, baina, zerbitzua hobetzeko asmoz, ikastaroak izan beharrean, igeriketa kurtsoa antolatu gura du

Kirol Zerbitzuak. Eskaintza hirugarren adinekoendako, lau urtetik aurrerako umeendako eta helduendako izango da. Egutegiari eta ordutegiari dagokienez, eta jendeak izena eman arte, behintzat, ez dituzte zehaztuko.

PILOTA

Dagoeneko zabalik dago Eskuz Binakako IV. Txapelketan izena emateko epea

Urtero moduan, herriko Kirol Zerbitzuak, Pilota Sailarekin lan-kidetzan, Eskuz Binakako Pilota Txapelketa antolatu du. Urriaren 5ean hasi eta abenduaren 14an bukatuko da. Bitarte horretan, gura duten pilotazale guztiak izango dute aukera Iturrigorri frontoian jokatu den txapelketan parte hartzeko. Bete beharreko baldintzak izango dira 16 urtetik gorakoa izatea eta pilotan federatu barik egotea. Izena emateko epea irailaren 25ean amaituko da. Parte hartzeko, Debagoieneko Kirol Zerbitzuetako bazkideek 12 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, berriz, 15 euro.

KARATEA

Odilo Vázquezek 31 ikasleekin hasi ditu karate eskolak

Odilo Vázquez karate irakasleak martitzenean hasi zituen eskolak. Talde bi osatu ditu: batean, sei eta 11 urte arteko gaztetxoak batu ditu. Talde horretan bi neska eta 19 mutil daude; eta bigarren taldean 11 urtetik gorako neska bat eta bederatzita mutil elkar-tu dira; talde hori osatzeko oraindik zabalik dago izenemate epea.

Abenduan, gerrikoaren maila -kolorea- hobetzeko txapelketa izango da, eta hartarako gertu izateko entrenamendutan hasiko da Odilo bere ikasleekin. Eguraldiak laguntzen badu, lehen saioak aire zabalean egingo ditu.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 0 Berio 1

Preferentea.

*(asteburuan ez da beste partidarik jokatu)

HITZORDUAK

FUTBOLA

Gure txokoa-UDA

Preferentea.

Amaiak bat-UDA

Bigarren mailako erregionala.


Aretxabaleta/Almen-Ilintxa

Gazteak (Ohorezko Liga).

Aretxabaleta/Almen B- Aretxabaleta/Almen C

Bigarren mailako gazteak.

OSASUN GIDA



ARETXABALETA

DENTISTAK:

■IMANOL ARRAZOLA OTXOA

Mediku-dentista

Otalora, 18-1D. Tel: 943 79 93 55

■ANGEL BENGEOA SAN MIGUEL

Mediku estomatologoa

Durana, 14-1. Tel: 943 79 05 57

MASAJEAK:

■FLOREN ELORTONDO

Masajeak eta osteopatia

Basabe industrialdea, Pab D z/g

Tel: 629 77 85 84 / 943 79 46 20

■LASAI MASAJEAK

Mirian Manteca masajista

Osteopatia kraneala: estrukturala eta

funtzionala, lotura muskularrak

Aurrez lekua eskatu: 943 77 04 34

■ZAINDUZ OSASUN ETA

FITNESS ZENTRUA

Kirol eta osasun zerbitzuak:

banakako fitness programak, masajeak...

Hilargi plaza, 6. Tel: 658 75 80 12

■EKIN FISIOTERAPIA ZENTRUA

Errehabilitazioa, masaje terapeutikoa, akupuntura, osteopatia.

Belorrieta, 6-7. Tel: 943 79 95 64

■PSIKOPEDAGOGOAK:

■LEBER KABINETE

PSIKOPEDAGOGIKOA

Hezkuntza arazoetan diagnostikoa eta tratamendua

Basabe industrialdea, C3-3.

Tel: 943 79 56 98

■PARAFARMAZIAK:

■FARMA BIZI PARAFARMAZIA

Maitane Urrutia Yurrebaso farmazilaria

Loramendi, 8. Tel: 943 77 18 18

■YOGA:

■SADHANA YOGA ETA PSIKOTERAPIA

Yoga, bioenergetika eta psikoterapia

Lezama komertzial zentrua

eta Santa Kurtz, 24. Tel: 616 965 795

ESKORIATZA

■FARMAZIA:

■BOTIKA LDA. M. D. AGUIRRE

PAGALDAY

Homeopatia, dermofarmazia, formula magistralak

Eduardo Gorosarri plaza. Tel: 943 71 48 28

■DENTISTAK:

■ENRIKE MAZMELA BOLINAGA

Hortz klinika

Eduardo Gorosarri, 3-1. Esk.

Tel: 943 71 47 36

■ORTODONTZIAK:

■AGUSTIN GOROSARRI BARBARIAS

Protesiko dentala: ortodontzia

Arana, 20-2.esk. Tel: 943 71 44 36

ARETXABALETARRAKMUNDUAN

BENITO GASTAÑAGA

LANGILEA / TORREVIEJAN (ALACANT)

“Egonezinak eta gauza berriak ezagutzeko gogoak atera ninduen etxetik”

AINTZANE GARDOKI

Benito Gastañaga urte mordoska bat dela irten zen Aretxabaletatik beste paraje batzuk ezagutzeko asmoz. Aretxabaletar peto-petoa izan arren, duela 30 urte poltsa baten gauza gutxi batzuk sartu eta, gazte zela, Alemaniara joan zen. Han gustura egon bazen ere, etxera itzuli zen, baina orduan ere ezin jaiotako lekuan geldirik egon: “Gaztetan abenturazale samarra izan nintzen, eta hemen ezin nuen, inondik inora, nire giroa topatu. Baina kontuz, ez Aretxabaletan edo etxean zerbaiten falta nuelako, abenturaren premia sentitzen nuelako, besterik ez”, argitu digu Gastañagak. Kanariar Uharteak izan zituen jomuga: “Hasieran, leku handi batekin egin nuen topo. Hiria bera zen handia, etxeen eraikuntza ere, hemengoekin konparatuta, guztiz desberdina zen. Eguraldia berak ere ez du zerikusirik, jakina, eta jendearen izateko era gureren aldean guztiz bestelakoa da.

Baina oso izaera zabalekoa naizenez, ez nuen integratzeko inolako arazorik izan”, gaineratu digu Benitok. Las Palmasen pasatu ditu 29 urte. Han topatu zuen emaztea eta han-

“Gorputza herritik kanpo eduki arren, burua Aretxabaletan daukat beti”

txe hazi zuen familia. Orain dela sei urte erretiroa hartu zuen Benitok, eta Las Palmastik Alacanteko Torrevieja herrira joan zen bizi izatera; etxea erosi, eta bi urte eta erdi daramatza han. Benito batetik bestera ibili arren, Aretxabaletar irrikaz etortzen da urtero; izan ere, Benitok esan digunez, “hezurak eta haragia hemendik kanpo ditut, baina burua beti izaten dut nire herrian, alegia, Aretxabaletan”.

HURRETIK



Karmele Agirregabiria

Euskaltegiko andereñue

Irakasle ikasketak bukatu zittuenien, han eta hemen ibilli zan lana topetan. Eta buelta batzuk emun ostien, euskaltegixen topau euen gustoko lekue eta lana Karmelek.

Ze da gatzague, euskeraz erakustie ala ikastie?

Nik neuk etxien jaso dot euskerie, baiñe pentsetan dot ikestie oso gogorra dala eta ikesten dabillen jentiek meritu haundixe daukola.

Euskaltegiko ikasliek gustora ala bihurtute etorten die?

Gehixenak gustora. **Erakutsi bai, baiñe gero egitten daue euskeraz?**

Hor be danetik dago. Hor zerikusi haundixe dauko ikaslien ingurukuek zela berba egitten dauen. Hortaz aparte, euskaldun zaharrok pekatu haundixe dauko! Euskaldun barrixekin euskeraz egin biherrien espainolera joten dogu.

Irakasle moduen zein da jaso dozun pozik haundixena?

Kalien neure ikasle bat euskeraz berba egitten ikustie.

Zela hartu dozu lanerako bueltie?

Txarto, oso gogorra egitten jat.

Liburu, abesti eta pelikula gustoko bat?
El último Caton eta Behi euskaldun baten memoria liburuek, Benito Lertxundiren Euskal Pizkundea abestixe eta La Milla Verde pelikulie.

Zure bizitzako egunik pozgarrixena?

Geure bi alabak jaixo zieneko egunek.

Bizi izeteko filosofia on bat?

Ez egin inñori zuretako gure ez dozune. **Urtaro bat?**
Udazkena; ezelako zalantzarik barik, gaiñera! Udaberrixek, udak eta neguek ez daukien xarma berezixe dauko, neure ustez, urtaro horrek.

AMAGOIA LASAGABASTER

NIREBIDAIAHURA/ Maite Ortiz de Zarate

Deux Mers-eko Kanala bizikletan / 2002ko abuztuan

Maitek, beste lau lagunekin batera, bizikletak prestatu, furgonetan beharrezkoak zituztenak sartu eta abuztuaren leian Frantziako Castets en Dorthera abiatu ziren. Helburua: Bordele-tik Mediterraneoan dagoen Sete herriraino, kanalez kanal, Frantzia bizikletan zeharkatzea, hau da, Deux Mers-eko Kanala egitea.

Hamabi egunean egin zuten bidaian 500 kilometrotik gora egin zituzten bost lagunek. Baina Maitek dioenez, lasai, oso lasai ibili ziren. Goizean jaiki, eta “ondo gosaldue ondoren, bizikleta gainean jartzen ginen. Bidean zerbezaren bat hartu, bazkaltzeko erosketak egin eta lasai heltzen ginen aurreko egunean zehaztutako puntura”. Baina hori bai, aukeratutako herriak tren-geltokia izaten zuen beti. Furgoneta izan dute lagun bide osoan, bertan egiten zituzten-eta bai jatorduak baita lo ere. “Gurago izaten genuen denok eguna denok elkarrekin pasatzea, bizikletan, eta ez gutariko bat furgonetarekin segika ibiltzea. Arratsaldeetan bi lagun goizean furgoneta utzitako lekura trenean itzuli eta autoa ekartzen genuen”. Batez beste, egunean 50-60 kilometro egiten zituzten. “Kanalaren bidea jarraitu dugu, eta nahiko berdina da guztia: erreka, alde bietara oinezkoen bidea, eta bide osoan platanondoak. Horregatik, jarraitu beharrek bidea alde batera utzi, eta Baïse eta Lot ibai inguruak ikusi ditugu. Erdi Aroko herri politik, zoragarriak, ikusi ditugu”, esan digu Maitek. Frantziarekin eta frantsesekin ere ezusteko handia, eta oso ona, gainera, hartu dutela gaineratu digu Maitek: “Bide osoan lasaitasuna izan genuen nagusi, baina Mediterraneoan heldutakoan bukatu ziren gure lasaitasunak”. Dagoeneko hurrengo a nora egin pentsatzen hasiak dira.



“Herri zoragarriak ikusi genituen Baïse eta Lot ibai-ertzetan”

“Ezustea hartu dut Frantziarekin eta frantsesekin”

AINTZANE GARDOKI



Kanalean barrena eskulua ugari ikusi zituzten.



EGUZKIGRAF
inprimategia

jai egitaraua, kartelak, bazkari txartelak, pegatınak, errifak,...

Jaiak txukun atera daitezzen!!

Aretxabaleto Industrialdea F-0-4
Araba Ibilbidea
20550 ARETXABALETA
Tfnoa.: 943 791844 / Faxe: 943 792941
info@eguzkigraf.com

JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte kalea
ARETXABALETA
943 77 03 08

BEIGONDO

optika

Loramendi, 10
Aretxabaleta
Tel. 943 79 98 21

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2002ko irailaren 20a / 93. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99



Abuztuaren amaiera ezker, denboraldia prestatzen ari dira areto futbol jokalariek.

A.G.

Herriko kirolariak hasi dira denboraldia prestatzen

AINTZANE GARDOKI

Herriko kirolariak gogor dabiltza entrenatzen, baina oraindik ez dira txapelketetan murgildu. Areto futbol taldeak izango dira lehenak lehiatzen; irailaren 28an hasiko dira. Saskibaloia eta pilotari dagokienez, urrian hasiko dira txapelketak.

Areto futboleko talde bi, saskibaloian nesken hiru talde eta pilotari federatutako dozena bat inguru pilotari buru-belarri prestatzen ari dira txapelketetan parte hartzeko.

Gaurkoan, areto futboleko taldeen gainean mintzatuko gara. Areto futboleko talde bat Euskal Ligan eta bestea Arabako liga probintzian izango dira datozen irailaren 28tik aurrera. Lehenengo mailako taldea 11 jokalarik osatuko dute eta entrenatzailea, orain arte bezala, Iñaki Corral izango da. Taldearen berritasun bakarra bigarren taldeetik talde nagusira pasatu den Enrike Tena jokalaria arrasatearrak ekarri du.

Bigarren taldea, berriz, 13 jokalarik osatuko dute, eta Jesús Hoyón entrenatzaile berria hasi da dagoeneko taldearekin lanean.

Elkartek denboraldi honetarako dituen helburuak ez dira gutxi: "Euskal Ligara jauzia egin

"Euskal Ligan, estuasun handirik barik mailari ondo eustea da gure lehenengo helburua"

"Bigarren taldea ere, bost jokalarirekin, hobetu dugula pentsatu gura dugu"

ondoren, estualdi handi barik mailari ondo eustea dugu helburu nagusi", esan digu Manolo Muñoz elkarteko presidentek. "Bigarren taldeari dagokionez, taldea hobetu dugula pentsatu behar dugu. Hiru jokalarik taldea utzi eta ibarreko beste bost jokalarirekin berri ditugu gurekin. Iaz lortutako bosgarren postua hobetu ez eze, Arabako Ohorezko Ligara igotzeko nahia ere badugu", gaineratu du Muñozek.

HELBURUAK LORTZEKO LANEAN

Abuztuaren bukaeran hasi ziren areto futboleko jokalariek Iñaki Corral eta Jesús Hoyón entrenatzaile berriaren aginduetara lanean. Astearen hiruzpalau aldiz egiten dituzte entrenamendu-saioak. Prestakuntza fisikoa lantzearekin ekin diote lanari, eta taldeetako arduradunen esanetan, gertu daude txapelketari ekiteko. Irailaren 28an, lehen mailako taldea Muskizera joango da; urtetan Euskal Ligan ari den Muskiz taldearen kontra jokatuko du. Bigarren taldeak, aldiz, Gasteizko Basoiloak taldea hartuko du etxean bertan. Zorte on!



Giro polita San Juan kaleko jaietan

Joan den astean esan bezala, bi urtean behin egiten dute San Juan kaleko auzotarrek eure-eurena egin duten festa. Zape-tuan, eguraldia lagun izan zutela, San Juan kalean jaiotako edo kale horretan bizi diren 100 auzokide batu ziren.

Meza izan zuten lehenengo, herri txikiteoa gero, eta bazkari ederra txikiteoaren ostean. Baina ez zen hor amaitu jaiak. Dantzan gelditu barik ibili ziren-eta sanjuandar asko eta asko. Eta ilundu eta gero ere, gaua ondo sartu arte, ez zen girorik falta izan San Juan kale inguruetan./A.G.

LABUR

Virginia Imazek zuzenduriko antzezlanak emango dio hasiera kultura eskaintzari

Gaur, egubakoitza, Virginia Imazek zuzendutako *Pekin* 36 antzezlanak aurkeztuko du Oihulari Klown taldeak, unibertsitateko aretoan. 1995ean Pekinen egin zuten Emakumeen Goi Bileran gainera antzerki emanaldi horrekin hasiko da opor osteko kultura eskaintza. Baina datozen astetan ere izango da zer ikusi eta entzun herrian: poesia errezitaldia, umeendako ipuin kontak berbaldiak, ikastaroak eta beste izango dira aukeran.

Tortolis ludotekako bazkide izan nahi duten lehenengo umeek eman dute izena

Irailaren 11n egin zen Tortolis ludotekako kurtso hasierako Jaia amaitu eta gero, ume eta gurasoen artean bazkide egiteko triptikoa banatu zuten arduradunek. Hilaren 30a bitartean bertan eman daiteke izena. Iaz 90 bazkide izan zituen ludotekak. Ekaina bitartean jolas egin, euskara indartu eta eskolarteko umeen harremana estutu nahi duenak badauka aukera. Axtrokiko bazkideek 22 euro eta gainerakoek 28 ordainduko dute.

LABUR

Herritar ugarik hartu du gripearen kontrako txertoa

Urriaren 31ra arte iraungo du gripearen kontrako 2002ko txertatze kanpainak. 65 urte-tik gorakoei, diabetikoei eta biriketako, bihotzeko, gibe-ko eta giltzurrunetako gaixo kronikoei gomendatzen diete hartzea. Dagoeneko ehunetik gora lagunek hartu dute.

74 urteko gizona hilda aurkitu dute Aranburuzabalan

Aranburuzabala kaleko 22. zenbakian Jose Mari Gaztelu, 74 urteko eskoriatzarra hilik aurkitu zuten joan den martitzenean. Bizilagun batek eman zien parte familiarrekoei, azkeneko egunetan ez zutela sumatzen-eta. Medikuak heriotza zertifikatu ondoren, arratsaldean, gorpua jaso zuten.

Ehiza xeheko txapelketa soziala, txakurrekin

Aldaiepe ehiza eta arrantza elkarteak antolatu du, hilaren 28an, Arriolan (Araba). Ehiztariak NA eta epaile lanak egingo dituen laguna eraman beharko du. Ehiztari bakoitzeko hiru faisai askatuko dituzte. Txapelketaren ostean bazkaria egingo dute. Izena emateko epea zabalik dago.

ELKARRIZKETA

VIRGINIA IMAZ/OIHULARI KLOWN TALDEKO KIDEA

“Atsegin dut Eskoriatzara etortzea, oso gustuko dut-eta hemengo jendea”

AINTZANE GARDOKI

Virginia Imaz aski ezaguna da gurean. Urteak dira lehenengoz Eskoriatzan izan zela, eta geroztik, gustura, oso gustura etortzen eida. Gaur, Virginiaren zuzendaritzapean, ‘Pekin 36.002’ jokatu-ko dute HUHEZIKO aretoan.

Eskoriatzan askotan izan zara.

Duela zazpi urte etorri nintzen lehenengoz. Geroztik, bai pailazo lanetan bai ipuin kontalari lanetan askotan egon izan naiz. Hemengo ikusleekin oso harreman ona dudala sentitzen dut.

Zelakoak dira Eskoriatzako ikusleak?

Oso herri irekia eta, era berean, oso *sanoa* da Eskoriatza. Umeak adi-adi egoten dira, orokorrenan. Nagusiendako eskaintzen ditugun ekitaldietan ere adin guztietako jendearekin egiten dugu topo. Barre egiteko beti prest dagoen herria dela iruditzen zait.

Pailazo eta ipuin kontalari lanetan aritzerakoan, umeak ala nagusiak gurago?

Nagusiek askotan pentsatzen dute kontu hauek umeendako egiten direla, baina guk helduei zuzendutako ekitaldi asko ere egiten ditugu. Niretako, gainera, umeendako sortzen hasten naitenezan lana gaitzagoa egiten zait.



Virginia Imaz arrerantzean ere herrian ikusteko aukera izango dugu.

Ume txiki bat daukat, eta horrek gogorarazten dit txikiei zerk sortzen dien barrea. Nagusi asko, bestealde, ipuin emanaldi bat entzun eta gero, *enamoratuta* gelditzen dira, eta hantxe izaten dira gero ere.

Zer ematen du ipuin batek?

Gure helburua eta nahia da, bai pailazo eta bai ipuin kontalari moduan, entzulea hunkitzea eta haren barrenak mugitzea. Ipuin batek gure arbasoen memoria aberatsa bizirik mantentzen du. Telebistak kontatzen dituen istorio berdin guztietatik guztiz desberdina da ondo kontatutako

ipaina. Profesionalok egiten dugun pedagogia soziala ere kontuan hartu behar da: ipuinek beti daramate balioetan oinarritutako mezu sakona. Pailazook ere umorearekin mozorrotutako kritika soziala egiten dugu. Bat-batean barrea eragin, baina gero, gogoeta egitea eskatzen duen mezua bidali gura dugu.

Egiten duzun guztiaren artean, zer duzu gogokoan?

Guztia. Baina inprobisazioak txoratzen nau. Kongresuetan izaten dugun pailazo lana, ipuinak kontatzea... Eta aldi bakoitzean ikusleak *poltsan* sartzea.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almien Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetzak	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

AXTROKIREN TXOKOA

GRAFOLOGIA IKASTAROA

Urriaren izango den Grafologia ikastaroan parte hartu nahi duten guztiek izena eman dezakete datorren astelehenean urriaren 4a bitartean, ludotekan edo Axtrokiren egoitzan bertan. Irune Ibarra grafologoak zuzenduko du ikastaroa eta urriaren 8an, 10ean, 15ean, 17an eta 22an izango da, 19:00etatik 21:00etara bitartean. Bazkideendako prezioa 27 euro izango da eta gainerakoendako, berriz, 30 euro.



ORAIN...
SOLARIUM
BERTIKALA

KiXkur
ILEAPAINDEGIA

Loramendi 11. Tel.: 943 79 90 79. ARETXABALETAKO

COMPOSTELA
Taberna

Olagarro
espezialitatea

San Pedro 12
ESKORIATZA
943 71 48 70



Aranburuzabala, 22 behea
ESKORIATZA
Tfnoa.: 943 71 51 20

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETAKO

CIPRI'S
PUB



Aranburuzabala 8
ESKORIATZA



MIRENTXU
TABERNA

Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

ESTETIKAN ESPEZIALIZATUTAKO ZENTRUA



EDURNE

Aranburuzabala, 42
Tel.: 943 71 51 54
ESKORIATZA

ELKARRIZKETA

ALHILA MOHAMED BABETT ETA GALIA MOHAMED SIDI / MENDEBALDEKO SAHARAKO HERRITARRAK

"Beharbada, gehiago egin dezakegu gure herriaren alde hemendik, han bertan egonda baino"

AINTZANE GARDOKI

Alhila Kimikari lizentziatu zen Kuban. Galiak, berriz, Dentista ikasketak egin zituen Karibeko uharte hartan. Egun batzuetarako bisitan etorri dira Gatzagara, baina orain, gelditzeko asmotan ei daude.

Gatzagako hiru emakume Saharan izan ziren Aste Santuetan.

Saharako emakumeek egindako Kongresuan izan ziren. Han ezagutu genituen Amaia, Mariatzen eta Edurne. Egun batzuetarako hona etortzeko aukera aztertu genuen, eta sinesten ez badugu ere, hemen gaude.

Eta luzerako gelditzeko asmorik?

Egia esan, ez dakigu. Hasierran, egun batzuetarako etortzea zen gure nahia, baina, agian, gehiago egin dezakegu gure herriaren alde hemendik han bertan egonda baino. Hemen lan egi-



teko eta heziketa jasotzeko aukera paregabea izan dezakegu, gurean ez duguna. Eta gure herriak askatasuna lortzen duen unean kanpoan gauden gazte guztiok herri bat jasotzeko beharrezkoa den oinarri sendoarekin itzuliko

gara. Hori da, behintzat, gure nagusiek eta guk geuk uste duguna.

Herri aberatsegia da zuen herria Marokok alde batera utzi dezan, ezta?

Gure herria oso aberatsa da:

"Euskaldunoi eskatuko nieke uda garaian gure umeak euren familietan hartzeko"

arrantza, fosfatoa... Eta nahiz eta Marokok isilean izan gura duen, petrolio-poltsa handiak ditugu. Hedaturaz, gainera, garen biztanle kopuru txikiarendako gure herria izugarri handia da. Europa eta Afrika arteko puntu estrategikoa ere bada Mendebaleko Sahara.

Zuek, jakina, ez duzue zuen herria ezagutzen, beti bizi izan zarete-eta desertuan errefuxiatuta.

Egia da. Argazkietatik ezagutzen dugu gure herria, eta herri polita daukagu, itsasoarekin eta guzti. Baina herria ez ezik, guta-

riko askok familiakoak utzi genituen okupatutako lurraldeetatik. Nik neuk geure aita ez dut ezagutu, eta ez dut ezagutu ere egungo, 1997an hil zen-eta.

Eta itxaropenik?

Gure herria itxaropena eskertzen duen esker eta kanpotik jasotzen dugu laguntzari esker bizi da. 27 urte daramatzagu itxaropenak daramatzen, baina noiz beteko. Baina ez Marokok ez NBek eta ez Espainiak ez ez dute behar bezalako erantzunik eman gura. Eta erreferenduma edo gerra da irtenbidea.

Zer esan euskaldunoi?

Mendebaleko Saharatik eskerriak ematea besterik ez daukagu Euskal Herriari, baita lehenekariari ere, gure herria aintzat hartzeagatik, eta gatzagarrei, esanik ez, gure alde egindako gaitzat. Dena dela, euskaldunon arruntei esango nieke gure unen alde badutela zer egin: uda gure umeak har ditzatela erantxetan, arren, oporraldia hema pasa dezaten. Benetan, oso lagungarria da hori.

**Erretiratuak, elkarrekin**

Herriko 31 erretiratuk elkarrekin pasatu zuten joan den domekako eguna. Lehenengo, Dorletan meza entzun zuten, eta gero, Toki Eder elkartearen bazkaldu zuten. Herriko nagusienak ez daude geldirik egoteko: hilaren 3an, Bizkaia aldera egin zuten irteera; Gernika, Bakio eta Gatika bisitatu zituzten, besteak beste. Bapo bazkaldu ei zuten eta gustura pasatu ei zuten eguna. Zapatuan, berriz, Maritxuk, Kruzek eta Emiliok urteak bete zituzten. Zorionak!

LENIZ, C.B. KONPONKETAK

LENIZ
ESKORIATZA

TXAPA, MARGOA
eta MEKANIKA

Aingeru Ibiltokia, z/g. • Tfnoa.: 943 71 50 61

NAIRA
Taberna


Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

Calderería
Cantera, S.L.
ALUMINIOAK



Zurgintza alumiioa erabiltza

Aingeru Guardakoa ibilbidea z/g
T. 943 71 49 11 F. 943 71 44 21
ESKORIATZA


GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA




Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA



Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida

Altube
elktrizitatea CB

San Migel 13 - 1D
Aretxabaleta. 943 79 53 88

Pintura eta dekorazioa

 **Gimbert**

San Migel 13, behea C
ARETXABALETA
609 143 119

TXOMIN
igeltserotza
ARETXABALETA

ERREKABARREN 20
607 739 835 / 943 79 63 94



RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA
"R.E.L.E."

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65

Tailerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Instalazio elektrikoak
- Atezain automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETA



Hnos. SAJERAS, C.B.

Margogintza
Dekorativo eta Industrial

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA
Tel.-Faxa: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Mobila: 608 92 11 18

PINTURAS
ESKORIATZA



- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ek. ESKORIATZA
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769



Jon Axpe Oyanguren
OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

Iturgintza • Gasa • Berogailuak • Peetrolio-produktuak • limatizazioa

L. GONZALEZ
PINTURAK
Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETA
686 113 581 / 943 79 65 46

AIDE GAS S.L.

Loramendi 8, Aretxabaleta.
Tel.: 943 71 27 73 / 605 71 27 05

**Gasa • Berogailuak
Bainuak • Iturgintza**



URKO
MANTENIMIENTO, S.L.

Instalazioen mantenu osoa
Berokuntza • Gasa
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97



ALUMINIOA/P.V.C.α/POLIURETANOA
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGAIK

Aluminios
KURTZEBARRI
Aluminioak

Araba ibilbidea, 17
*Tel.: 943 79 28 41 *Fax: 943 79 79 06
*20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
*E-mail: kurtzebarriehiak@euskalnet.net



GORBEA S.L.





Basabe poligonoa A-2-5 ARETXABALETA
Telefonoa eta faxa 943 79 15 71

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
GASA
KALEFAKZIOA



MITARTE 15
ARETXABALETA
943 793 187